

Jare Sanzo Orts

A maila • 2 aipamena

Jare Sanzo Orts naiz, 16 urte ditut eta lehenengo batxilergoa bukatzeaz nago Beasaingo Txindoki Institutuan. Izaldarra naiz izatez, baina toki finkorik izango ez banu bezala ikusten dut sarritan neure burua. Zein den nire ametsa? Mundu osoan zehar bidaiatzea dela esango nuke, herri txiki batean jaioa izanagatik, agian, baina hartaz ere ahaztu gabe, beti itzultzen omen baikara zoriotsu izan ginen lekura.



ESKERRIK ASKO DENAGATIK

Arratseko seiak eta hamabi minutu. Bat-batean, hotzikara batek hartu ninduen eta milaka pentsamendu etorri zitzaizkidan gogora. Azkenean iritsi zen unea, zazpi urtetan zehar amets gaiztoenetan agertu zaidan itzala begietara begira geneukan, amaren eskua harturik, inongo erruki sentimendurik gabe. Ez zegoen atzera egiteko aukerarik, aurrera baino ez. Bere aurpegi lokartuari erreparatu nion, malko gazi potolo bat ezpainetatik zintzilik sumatzen nuelarik, hari ikusezin batek erortzen utziko ez balio bezala. Ausarta izan behar nuen, nigatik eta amarengatik. Segundo bakar batean ere, zalantza ugarik bereganatu ninduten, eta korronte handiko ibai batean igerian ikasi ez duen haur txiki baten moduan sentitu nintzen, egoerak ene eskuartetik ihes egiten zidala ikusten nuen heinean. Agian bide okerretik gindoazen, eta une batez, mundua gelditu, ama esnatu, eta elkarrekin alde egiteko desioa piztu zitzaidan. Baina hori ipuinetan soilik gerta daiteke.

Azken begiradarekin batera, ezker eskua hartu nion amari. Inoiz baino indartsuago. Ez nuen nahi itzalaren hatzaparretan eror zedin, aspaldian aitak egin zuen bezala, ezustekoz eta ia inor konturatu gabe. Ordutik, bizipozez borborka zegoen hamaika urteko neskatxa bat nintzenetik, izan ditut gauero amets gaizto horiek. Kaka zaharra. Piztia beldurgarri hura jada lagun geneukan familian. Eta orain, amaren bizia eramango zuen, nire begien aurrean. Nirea ere emango nuke, bizi ezin izan dituen une horien guztien trukean. Baina horretarako geunden han, behin betikoz amaren etengabeko sufrimendu jasanezinari bukaera duin bat emateko, amaren istorio laburrari amaierako puntua jartzeko.

Bidaia luzea egin behar izan genuen Herbeheretaraino. Ez dakit nola izan nintzen hain denbora tarte laburrean halako diru kopurua lortzeko gai, inoiz ez baikara izan familia dirudun horietakoa. Agian azkeneko momentuan lortu nuen lan horri esker izan zen, zerbitzari moduan. Gorriak ikusi nituen soldata hura irabazteko, baina izerdi tanta nahiz lo egin ezinik egondako gau hotz bakoitzak merezi zuen amaren desioa burutzen laguntzen bagintuen. Urtebetetze egunean edota Eguberrietan lortutako diru guztia gordetzen ere hasia nintzen, eta inguruko lagunek ematen zidaten laguntzaz ez balitz, ezin izango nukeen aurrera jarraitu.

Amak egunetik egunera okerrera egiten zuela ikusten nuen. Amorrazioa. Amorrazioa eta ikara izan nituen lagun. Ezin nuen sinetsi konturatzerako aitaren moduan joan zitekeenik. Eta ez nuen ulertzen zergatik. “Denbora kontua besterik ez dun izango. Ikusiko dun hurrengo asterako jada sasoi onean egongo dela hire ama” esaten zidan irakasleak burumakur ikusten ninduen bakoitzean. Ai! Zenbatetan desiratu nuen korrikan hasi eta inoiz ez gelditzea!

Gabonetan izan zen erabakia hartu nuen unea. Amak ezin zuen horrela jarraitu. Hemengo medikuen esanetan, bere gaixotasunak ez zeukan erremediorik eta egunak zenbatuta zituen. Mundua gainera erori zitzaidan. Zergatik ezin nintzen amaren lekuan egon bere orde? Etsita sentitu nintzen. Etsita ama betiko joango zitzaidalako, ni bakarrik utziz. Etsita ezin nuelako ezer egin hura ekiditeko. Eta etsita sufritu besterik ez zuelako egiten, bere ordua noiz ailegatuko zain. Beraz, egun batean, amaiera duina eskatuz, egoera horrekin akabatzeko esan zidan amak.

Handik hilabete batera, Amsterdamerako hegazkinean geunden. Beldur nintzen. Banekien ospitalera iritsitakoan, dena amaituko zela, ama joan egingo zitzaidala. Ez nengoen prest. Ez nintzen inoiz egongo, eta ordularia aurrera zihoan, nire amets gaiztoena egia bihurtzeko bidean. Azkeneko unean hegaldia bertan behera gelditzea desiratu nuen gogo guztiekin, Herbeheretara inoiz ez iristeko esperantzarekin. Berekoia ni. Ama sufritzen ikusten nuen eta halere, bakarrik bukatuko nuen beldurrez, bera nirekin betirako gelditzea nahi nuen, kosta ahala kosta. Nazka sentitu nuen neure buruarekiko. Berekoia ni.

Ametsetan, aita agertzen zitzaidan. Ia ez nuen ezagutu ere egiten. Gehienetan lotan ikusten nuen, ohean etzanda, eta haren ondoan, itzal bat. Itzal beldurgarri bat, aurpegiarekin alderatuz, proportzio handiegian zegoen otso irribarre batekin. Hegazkinean lokartu nintzenean, berriz, ez zitzaidan aita agertu, ama baizik. Baina hainbeste urteren ondoren, ez zegoen itzalaren arrastorik. Zerbait aldatu zen nire barruan. Eta amaren heriotza askatasun moduko bat balitz berarentzat? Zergatik izan beldur amaren onerako bazen? Txikia nintzenetik itzalaren beldur nintzen, eta piztia beldurgarri baten antzera margotzen nuen nire baitan. Pintzelkada trakets eta kolore ilunez margoarazi digute heriotza betidanik, baina une hartan, izate horrek eraldaketa bat jaso zuen nire irudimenean, beldarra tximeleta bihurtzen deneko metamorfosiaren antzera.

Egun hartatik aurrera edozer gauzari aurre egiteko gai nintzen. Ez nintzen etorkizunaren beldur, ezta bakardadearena ere. Ez horixe. Batzuetan ametsek irakasten digute begiak irekitzen. Batzuetan beharrezkoa da txikitatik inposatu nahi izan digutena zalantzan jartzen.

Ospitaleko zorua zapaltzearekin batera, listua irentsi nuen. Eztarria guztiz lehortu zitzaidan bidaian zehar, baina hegazkineko aire girotuaren erruz izango zela pentsatzeak lasaitu egin ninduen. Hotzikara sentitu nuen eraikinean sartzean, bai, baina ausart ikusi nuen neure burua. Amari begiratu nion. Zuri zuri zegoen jada, indarrik gabe. Ahaleginak eta bi egiten zituen pausu bakoitza emateko. Aurrean, harrera gelako mahaiaren parean, erizain bat geneukan zain, irribarre nahiko artifizial batekin. Iritsi zen unea. “Bagoaz, ama”.

Gelarako bidean, amaierarik gabeko eskailera horiek guztiak igotzen ari nintzen bitartean, txikitako oroitzapenak etorri zitzaizkidan gogora. Aita hil zenean, bizitzan ausarta izan behar dela errepikatzen zidan amak behin eta berriz, ez dela inoiz etsi behar. Ordutik, izugarritzko ahaleginak egin behar izan zituen eskatzen nion guztia emateko. Amaren aurretik beti neu nengoen. Egunak pasatzen zituen gosez akabatuta nik neure eguneroko janaria izateagatik. Jo eta ke lan egiten zuen bere alabak arropa gustukoenak eduki ahal zitzan. Eta orain, emakume hura ospitaleko hirugarren solairuko gela bateko ohean etzanda zegoen, irribarretsu, niri begira. Esapideak “begirada batek mila hitzek baino gehiago balio duela” dio. Une horretan ulertu nuen haren zergatia.

Hurrengo eguna frogak egiten igaro zuen amak. Bazirudien ez zirela inoiz bukatuko. Pazientzia galtzen hasita nengoen jada, nahiz eta minutu batzuetako kontua izan. Iluntze hartan, ordean, hurrengo egunean egingo genuela jakinarazi zigun erizainak. A zer-nolako lasaitua hartu zuen amak! Gau hartan, ohearen ondoko besaulkian ahal nuen moduan etzanda nengoela, amets bat izan nuen. Orain arte guztietan politena, Amsterdamera egindako bidaia hark merezi izan zuela sentiarazi zidana. Aita eta ama azaldu zitzaizkidan, elkarrekin, besoaz pozez gainezka agurtzen nindutela. Negar malko potoloak atera zitzaizkidan inkontzienteki, baina poztasun malkoak ziren gehienak. Denbora luzean, lehen aldiz, unibertsoarekin bakean sentitu nintzen, baita neure buruarekin ere. Gau hartatik aurrera, ez ditut amets gehiago izan.

11:59. Minutu bat erizaina etortzeko. Amak eta biok txikia nintzeneko argazkiak eta familiako albuma ikusten jardun genuen goiz osoan. Argazkietan islatutako oroitzapen dezente lausotuta nituen, gehienak aita, ama eta hirurok agertzen gineneko argazki horietakoak. Ama, berriz, une bakoitzeko xehetasun guztiez oroitzen zen inongo zailtasunik gabe. Betidanik izan du memoria ona, nik ez bezala, egia esan.

Eguerdiko hamabiak bost minutu pasatxo azaldu zen aurreko egunean harreraren aurkitu genuen erizaina eta beste gizon bat. Azkar asko instrumentu eta makineria guztia prest jartzen hasi ziren, eta amaitu bezain laster, dosi txiki bat injektatu zioten amari xiringa baten bidez. "Eskerrik asko denagatik", horiek izan ziren bere azken hitzak, nire eskuineko eskuari helduta lo hartu aurretik. Irribarre gozo batez erantzun nion nik.

Ordu laurdena zeraman lo, inguruan gertatzen zenaz ohartzen ez zelarik. Erizainak, bitartean, paperez jositako karpeta arrunt batean apunte trakets eta azkarrak hartzen ikusten nituen. Kasurik ez egiten ahalegindu nintzen. Gela guztia isiltasun osoan murgildurik zegoen, eta amaren monitoretik zetozen bihotz-taupaden hotsak soilik puska zezakeen lasaitasun hori: pi-pi... pi-pi... pi-pi... Minutuak igaro ahala, hots hori moteltzen zihoan, monitoreko pantailan agertzen ziren zenbaki guztiak jaisten zihoazen heinean. Bazetorren unea. Erizainek hitz batzuk trukatu zituzten. Ez nintzen gai izan elkarriketa hori ulertzeko. Inoiz ez naiz ikasle ona izan, eta oraindik gutxiago ingelesean. Pi-pi..... pi-pi..... Estutu egin nion amari eskua eta ez nuen begirada bere aurpegi lasaitutik aldentzen. Eraikinaren kanpoaldean zeuden txoriak bat-batean kantari hasi ziren, denak batera, eta orkestra sinfoniko baten pieza bezalako kantu melodiko bat abesten hasi ziren. Gutxi falta zen. Azken begirada bota nion monitorean: pi..... pi..... Eta halako batean, isiltasuna.